




Azalera handietako salmentak %1,7 handitu ziren

Azalera handietako salmentak

Urte bakoitzeko abuztua. Indizea




Iturria: Eustat.

Abuztuan, azalera handietako eta elikadura kateetako salmentak %1,7 gehitu ziren aurreko urtearen aldean. Elikagaien salmenta bere horretan geratu zen (-%0,1), baina gainerako produktuen bilakaera onak konpentsatu zuen (%5,0) jaitsiera txiki hori. Halaber, enplegua %1,9 hazi zen 2021eko datuekin alderatuta.

Uztailean, eratutako hipoteken kopurua gutxitu zen

Etxebizitzak erosteko hipotekak

Urte bakoitzeko uztaila



Iturria: INE


Aurtengo uztailean, etxebizitza bat erosteko izenpetu ziren hipoteken kopurua 2021eko hilabete berekoa baino %5,3 txikiagoa izan zen. Beherakada nabarmen handiagoa da 2020ko datuarekin alderatzen bada. Interes tasen igoera egon daiteke hipoteka eskaeraren murrizte horren atzean.



Eraikuntzaren kostuak moteldu ziren abuztuan

Eraikuntzaren kostuen indizea

Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

Eraikuntzaren kostuek berriro moteldu zuten beren hazkunde tasa abuztuan, %10,4an kokatu arte. Lehengaiak %11,8ko garestitzea izan zuten eta eskulanak %5,8koa. Kostuen igoera handiagoa da obra zibilean (%13,7) eraikinen atalean baino (%9,6).

Estatuko KPI indizea %9,ora jaitsi zen irailean

Estatuko KPIaren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE.

Irailean, Estatuko KPIa %9,ora jaitsi zen, INEk argitaratutako aurre-rapenaren arabera. Beraz, aurreko hilabetearekin alderatuta, puntu eta erdi murriztu da. Elektrizitatearen jaitziera funtsezkoa izan da beherakada horretan, baina baita erregaien eta garraioaren merkatzea ere.